

*Irlandako estatuko elebitasun ereduak izan duen bilakaera deskribatzeko eta esplikatzeko asmoz egindako azterketen ikuspegi orokor bat aurkeztea da artikulu honen helburua. Bi azterlanetan oinarritzen da batez ere. Lehena 1973an egindakoa, eta bigarrena 1983an burututakoa.*

*Bigarren azterketa honi buruz oraingoz aurretxosten bat besterik ez da argitaratu. Bi azterketa horien emaitzen alderdirik garrantzitsuenak aipatzera mugatzen da lana, horrela bi helburu beteasmoz: Irlandan gaur egun elebitasuna zertan den laburki deskribatzea, eta aldi berean, nahikoa material lagungarria eskaintzea gaur egun hizkuntz politika eta ikerketa mailan sortzen ari diren gai batzuei buruzko eztabaidan argia bilatzeko.*

## ELEBITASUNA IRLANDAN 1973tik 1983ra: AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKO NAZIONALEN GAINBEGIRADA

**Pádraig Ó Riagáin**  
*Institiúid Teangeolaíochta Éireann*  
Itzultzailea: Joseba Ossa

Nahiz eta ikerketen emaitzak urriak izan, ikerketa soziolinguistikoa gaur egun onartua dago plangintza prozesuetako elementu gisa, eta garbi ikusten da zenbait norabide-aldaketa izan dituela 70eko hamarkadaren hasieraz geroztik, alde batetik ikerketaren emaitzen ondorioz, eta bestetik politika orokorraren norabidea eta egituraren garapen berrien ondorioz.

### HIZKUNTZ POLITIKAREN GARAPEN HISTORIKOA

1922an «*Language Revival Movement*» edo Hizkuntz Berpizkunde Mugimenduaren ideologia eta kideak sakonki erroturik zeuden independentzia politikoaren aldeko mugimendu zabalean. Beraz, ez da harritzekoa Irlandako gobernu berria urte horretan egiten hasi zena: irlandaraz mintzatzen ziren komunitateak hedatzeko estrategia zabal baten lehen urratsak ematen hasi zen. Gobernuak zailtasun handiei egin behar izan zien aurre. 1911ko erroldaren arabera, biztanleen %18ak besterik ez zen irlandaraz mintzatzen, eta gainera estatuko mendebaldeko lurralde urrunetan bizi ziren gehienak. Bestalde, 1851ko erroldak eta harez geroztik izandako joerak garbi uzten zuten irlandera a-tze-rapausoak ematen ari zela. Bai, XVI. mendean irlandera nagusi zen

Irlandan, baina indarra galtzen joan zen, eta azken erroldetako datuak beherakada horren adierazpen ziren (Fitzgerald 1984). Hala eta guztiz ere, zoritarreko egoera diakroniko eta sinkroniko horrek ez zuen gogorik gabe utzi iraultza ondorengo gobernu, eta 20ko hamarkadan hiru oinarriko estrategia zabal berri bat sortu zen, gaur egungo hizkuntz politikaren marko gisa irauten duena, hain zuzen.

Estrategia horren lehen oinarria irlandera bizirik zegoen lekuetan garatu zen, hizkuntzak bizirik iraun zezan. Leku horiek (Gaeltacht izena hartu zutenak) estatuko lekuri txiroenen eta urrutien artean zeudenez, strategiaren oinarri horrek laster hartu zuen itxura ekonomikoa, eta lurraldeko garapen ekonomikoaren programa bihurtu zen. Dokumentu ofizialetako «Gaeltacht politika» deitzen zenaren barnean garapen esparru ugari zeuden: industrial, nekazaritzazkoa, etxebizitzena eta osasuneko. Administrazio mailan ere ahalegin handiak egin ziren ahal zen neurrian estatuaren zerbitzuak irlandarren bidez bidetearren Gaeltacht-etan. Hasieran, politika horien burutzapena estatuko agentzia handien eskuetan utzi zen, baina 1956an gobernuko departamentu berri bat eratu zen, eta gero, garapen agentzia berezi bat ezarri zen (gai honi buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus Commins, *Int'l. J. Soc. Lang.* 70, 1988). Politika horiek non aplikatu erabakitzeo hizkuntz irizpideak erabiltzen ziren 1926an, baina 1956an joera hori zeharo aldatu zen, eta irlandera mintzatzen ziren lurraldeetat hartzen ziren lekuak asko murriztu ziren politikaren helburuei dagokienez.

Bigarren oinarria irlandera nagusi ez zen lurraldeetan garatu zen. Gai horri dagokionez, 1926an irlandera mintzo zirenen lurraldeetan estatuko biztanleen %16 besterik ez zen bizi. Beste lurralde guztietan, beraz, hizkuntz politika eta arazoak bestelakoak ziren. Hor, helburua «Berpizkundera» zen, zeren irlandera mintzo zirenak gutxiengo txiki eta sakabanatu bat besterik ez ziren, eta ingeles hiztunen gehiengo batez inguraturik zeuden. Beraz, estatuak hezkuntz sistemara jo zuen irlandera mintzo zirenen kopurua handitzeko asmoz. Bigarren Hezkuntza edo ertainetan oso ikasle gutxi zeudenez, hezkuntz politikaren ia pisu guztia Oinarriko edo Lehen Hezkuntzaren esku egon da azken hamarkadak arte. Irlandera ikastea derrigorrezko bihurtu zen hezkuntz prozesu osoan zehar, baina azken helburua urutiago zegoen: ikaskuntza-programa guztiak irlandera burutzea. Helburu hori ezin zen berehala bete, zeren lanean ari ziren ikasleek %9a besterik ez baitzegoen prestatuta irlandera irakasteko. Horren ondorioz, eskoletako irakaskuntza-politikak programa ugari sortarazi zituen: ikastaro aze-

---

*«1911ko erroldaren arabera, biztanleen %18k besterik ez zuten irlandera mintzatzen, eta gainera estatuko mendebaldeko lurralde urrutietan bizi ziren gehienak»*

---

**«Nahiz eta orduan,  
orain bezala, irlandera  
maila bat eskatzen zen Irlandako  
Unibertsitate Nazio-  
nalean sartzeko»**

leratuak (azkarrak) lanean zeuden irakasleentzako, prestakuntza-ikastaroak irakasle berrientzako, irakaskuntza-materialak eta testuliburuen sorkuntza, eta abar. Garai hartan oso ikasle gutxik jarraitzen zuen ikasten oinarrizko hezkuntza amaitu ondoren, baina Bigarren Hezkuntzan ere helburu berdinak zituzten. Unibertsitateetan eta hirugarren mailako instituzioetan (irakasle eskoletan ezik), ordea, ez zegoen halako helbururik, nahiz eta orduan, orain bezala, irlandera maila bat eskatzen zen Irlandako Unibertsitate Nazionalean sartzeko.

Aurreko bi oinarri horiek nolabait alboan utzita, hirugarren dimentsio bat ere bazuen estrategia horrek. Eta hirugarrenaren helburua aurreko bientzako azpiegitura edo testuinguru egoki bat eskaintzea zen. Eta horretarako neurri ugari hartu ziren: irlanderaren estatus konstituzionala eta legala definitzea; hizkuntza estandarizatzea eta modernizatzea; irlanderaz idatzitako argitalpenak zuzenean edo zeharka sustatzea; irrati (eta gero telebista) zerbitzuak irlanderaz eskaintzea; ohar publikoak, kaleetako seinaleak, eta dokumentu nahiz inprimaki ofizialak irlanderaz edo bi hizkuntzatan egitea; irlandera maila ona duten funtzionariak lortzeko prozedurak ezartzea, eta abar.

Baina noski, neurri horiek aipatzeak ez digu garbi uzten zenbat adinako indarrez edo eraginkortasunez aplikatu ziren, ezta neurri horiek zenbat jenderengan izan zuten eragina ere. Ezin dugu gai hori hemen aztertu. Oraingoz nahikoa da zera esatea: estrategia zabal horren barnean sartzen ziren politikak oso anitzak zirela, oso helburu altuak ziztuztela, eta lan handia eskatzen zutela, kontuan izanik Irlanda estatu txikia eta txiroa zela, eta independentziaren ondorengo arazoei aurre egin behar ziela. Dena den, nahiz eta hizkuntz politikaren dimentsio desberdinen artean eta dimentsio bakoitzaren baitan emaitzak desberdinak izan, estrategia hori gogo eta konpromezu handiz, eta nolabaiteko arrakastaz inplementatu zuten 1925 eta 1950 artean. Gero, 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, strategiaren funtsezko elementu batzuk asko aldatu dira, eta aldi berean estatua beste politika batzuk garatzen saiatu da.

Hizkuntz politika orokorrak izandako bilakaera nolakoa izan den jakiteko adibide bat eskain dezakegu: oinarrizko eskoletako hizkuntz politika. Lehen esan bezala, politika horren helburua hezkuntz prozesu osoan zehar irlandera ikastea guztiontzat (ingeles eta irlandar hiztun guztiontzat) derrigorrezko bihurtzeaz gain, ikaskuntza-programa guztiak irlanderaz burutzea ere ba zen. Ondorengo taula honetan ikus daitekeen bezala, azken helburu hori ez zen erabat bete.

1. taula. *Ikasgai guztiak edo batzuek irlandez irakasten zuten oinarrizko eskolen kopurua (portzentaiak parentesi artean).*

Ikasturtea	Dena irlandez	Ikasgai batzuk irlandez	Oinarrizko eskolen kopurua
1930/1931	228 (4)	n.a	5.378
1940/1941	623 (12)	2.192 (43)	5.076
1950/1951	523 (11)	1.955 (40)	4.897
1960/1961	420 (9)	2.055 (42)	4.880
1970/1971 <sup>(a)</sup>	194 (5)	49 (1)	4.117
1980/1981	161 (5)	21 (1)	3.294

(a). 1970/1971 urtean irizpide berriak sartu ziren indarrean. Iturria: *Hezkuntza Saila, Urteroko Estatistika txostenak.*

Taula horretan, bigarren zutabeko datuak (dena irlandez irakasten zutenak) erabateko «murgilketa» ereduari dagozkie, eta hirugarrenekoek (ikasgai batzuk bakarrik irakasten zutenak) batipat «murgilketa goiztiarra»ren eredia jarraitzen zuten; hau da, haur eta gaztetxoek klaseak irlandez ematen ziren. Garai horietako beste oinarrizko eskola guztietan irlandera beste ikasgai gisa soilik irakasten zen, eta gainontzeko gai guztiak ingelesez irakasten ziren.

Politika hori gero eta eraginkorrago izan zen 1920tik 1950era. Azken urte horretan estatuko oinarrizko eskolen erdiak baino gehiagok (%51) eskaintzen zuten nolabaiteko murgilketa programaren bat (osoa edo partziala). Hala ere, eta unerik onenean ere, estatuko eskoletatik ia erdiek ikasgai gisa soilik irakasten zuten irlandera, eta hurrengo 30 urteetan eredu hori ia-ia arau unibertsal bihurtu zen irlandera mintzatzen ez zen lekuetan (eta hain zuzen hortxe daude eskola gehienak). Baina ezin da ahaztu 1970az geroztik «Irlanda guztirako» programean interesa erabat berpiztu egin dela eta gutxi gora-behera 50 eskola ezarri direla garai horretan ingelesez mintzo diren lekuetan, gurasoengandik jasotako presioaren ondorioz (gai honetan sakondu nahi izanez gero, ikus Ó Riagáin (b); Ó Buachalla 1984; eta Ó Glasáin eta Harris-ek idatzitako artikuluak).

Nahiz eta adibide bakar bat (hezkuntzarena) aipatu dugun, gaur egun ez da zalantzan jartzen (Ó Tuathaigh 1979) beste joerek ere, oro har, antzeko bidea jarraitu zutela. Hala ere, 1950 arterako hizkuntz sustapen indartsuak eta geroko fase zalantzakorrakoak nolabaiteko eragina izan zuten elebitasun ereduari, 2. taula honetan ikus daitekeen bezala.

2. taula. *Irlanderazko hiztunen portzentaiak adinen arabera 1926-1981*

Urtea	Adin multzoak			Guztirako biztanleak (3 urtetik gorakoak)
	3-4 urte	15-19 urte	35-44 urte	
1926	4,6	27,6	11,9	18,3
1936	5,5	45,3	12,3	23,7
1946	4,1	43,4	11,2	21,2
1961	5,9	50,5	26,2	27,2
1971	5,5	51,5	27,2	28,3
1981	4,9	51,0	30,0	31,6

Iturria: *Biztanle errolda.*

Hizkuntz maila neurtzeko erroldan erabilitako galdera ez zen oso zehatza, ezta informagarria ere. Irlandera soilik edo irlandera eta ingelese «hitz egiteko» gai diren galdetzen zaie, besterik gabe. Hala ere, epe luzeko joerak aztertzeko dugun informaziorik egokiena da. Gazteen zutabea behatzen badugu (15-19 urtekoena) garbi ikusten da irlandera mintzatzeko gai zirenen kopuruak gora egiten duela 50. hamarkadaren bukaerara arte. Gero, proportzioak egonkor bihurtu dira. Horren ondorioz, helduen artean ere kopuruak gora egiten du, eta gora egiten jarraitzen du, baina gazteenak behatu ondoren pentsa zitekeen baino askoz geldoago. Beste hitzetan esanda, etengabeko «irristaketa» edo beherakada gertatzen da hiztunen mailan eskola utzi ondoren. Horrek esan nahi du eskolan (batzuetan) intentsiboki irakatsi arren, gero ez dela irlandera asko mintzatzeko kalean, eta beraz, hizkuntz trebetasunak kaltetu egiten direla erabileraren faltagatik. Elebitasun maila baxu hori are eta garbikiago agertzen da umetxoek zutabea irakurtzen badugu (3-4 urtekoak). Irlandan umeak ez dira eskolara joaten lau urte bete arte; beraz, adin horretan garbi geratzen da zein den etxeko hizkuntzaren eragina umeengan. Ikus daitekeen bezala, portzentaia ez da ia mugitu ere egiten; ia denbora guztian %5aren inguruan dabil, baina batzuek hizkuntzaren iraupenaren adierazletzat hartzen dute datu hori.

Datu horiek nazio-mailako portzentaiak dira. Hor ez dira ikusten zenbait aldaketa (bai espazioari dagozkionak, eta bai sozialak ere). 1911n, mendebaldeko kostaldean, hau da, irlandera-hiztunen lurretan, estatuko biztanleen %16a bizi zen, eta irlandera mintzo zirenen %57a. 1981ean, mende erdiko emigrazio etengabearen eta hizkuntz aldaketan ondorioz, -eta baita 1956an egindako birzonifikatze handiaren ondorioz ere- lurralde horietan estatuko biztanleen %2,3a soilik geratzen zen, eta irlandera hiztunen %7,4a besterik ez. Leku aldaketak di-

rela eta, datu horiek nolabait handitu egiten dute beherakadaren portzentaia, baina bestalde garbi dago, eroldari begiratuz gero, irlandarak ez ziola lehengo egoerari eusten bere ezarpenlekurik garrantzitsuenean. Hala ere, 1981ean lurralde horietan zegoen irlanderez mintzo ziren familien %45a (3-4 urteko hiztunak kontutan izanik).

Hiztunen gizarte-mailari dagokionez ere aldaketak izan dira. 1926an irlanderez mintzo zirenak gehien bat nekazariak ziren. 1971n, ordea, profesionalak, administrazioak eta zerbitzuetako langileak dira gehien hitz egiten dutenak, bai proportzio erlatiboetan eta bai absolutuetan ere. Beraz, elebitasunak hiritartzeko joera jarraitu du Irlandan.

Oro har, beraz, informazio mugatu horren arabera zera ondoriozta dezakegu: hizkuntz estrategia horrek ez zuela lortu irlandarak berez hizkuntza hori mintzo zen lurraldeetan lehengo mailari eustea, eta aldi berean hiztunen kopuruak gora egin zuela beste lurraldeetan (eta batez ere gizarte-maila hezituenen artean), baina trebetasun mailaren gorakadak ez zuela lortu irlandera jendearen komunikazio hizkuntz bihurtzea. Hori horrela dela ikusteko nahikoa da bi fenomeno behatzea: irlanderez mintzo diren familien urritasuna, eta eskola utzi ondoren ikasleen trebetasun mailak jasaten zuen beherakada.

Ondorio horiek 1971ko eta 1981eko Biztanlego Erroldetako informazioetik atera badira ere, 1960rako jadanik agerian zegoen joera hori, eta horrexegatik hasi zen gobernuaren zenbait berrazterketa eta ebaluazio egiten. Lan horietan ikerketa soziolinguistikoak gero eta paper garrantzitsuagoa izan zuten.

#### IKERKETAREN TESTUINGURU BILAKAKORRA

Egoera nolakoa zen aztertzeko, gobernuak egin zuen lehendabiziko gauza gobernu-batzorde bat izendatzea izan zen, «*An Coimisiún um Athbheochan na Gaeilge*» (Irlanderaren Berrezarpenaren Batzordea) 1958an eratu zen, eta bere lanaren ondorioak 1963an argitaratu zituen. Batzordeak ez zuen bere ikerketa propiorik egin, ezta beste inori egiteko eskatu ere. Alderantziz, ohizko prozeduretara jo zuen, eta beren iritzia eskatu zien estatuko agentziei, erakunde pribatuei eta pertsona batzuei. Horren fruitu gisa ateratako 500 orrialdeko txostena oso baliagarria da Irlandako hizkuntz plangintza aztertu nahi duenarentzat, baina zaila da ezer garbirik ateratzea bere 288 «gomendio nagusietatik». Zaila zen batzordearen iritzia orokorra zein zen eta gauzak nola zihoazen jakitea; zaila zen, beraz, aurrerantzean zein estrategia erabil-

---

«Etengabeko "irris-taketa" edo beherakada gertatzen da hiztunen mailan eskola utzi ondoren»

---

«*Trebetasun mailaren gorakadak ez zuen lortu irlandera jendearen komunikazio hizkuntz bihurtzea*»

tzea komeni zen asmatzea. Gobernuaren erantzuna nolabait baikorra zen, baina aldi berean nahasia. Gomendio gehienak onartu zituen, baina zalantza ugari zituen gomendio gehienen bideragarritasunari edo eraginkortasunari dagokionez. 1969an kontseilu berri bat eratu zuten «*Comhairle na Gaeilge*» (Irlanderaren Kontseilua). Politika berriaren garapen prozesuaren parte bat zen. Batzordeak ez bezala, *Comhairle*-ak albo batera utzi zituen detaileak, eta alderdi estrategikoak landu zituen. Estrategia mailan hiru atal bereizten zituen: (a) epe luzerako estrategia bat prestatzea, helburu neurgarriak eta errealistak ezartzearen, (b) estrategia burutzeko behar den marko instituzionala ezartzea, eta (c) erabakiak hartzen dituztenek jasotzen duten informazioaren kalitatea hobetzea.

*An Comhairle*, 1970 eta 1974 artean argitaraturiko lan labur batzuetan garatu zituen gai horiei buruzko ideiak eta proposamenak (*Comhairle na Gaeilge* 1971a, b, 1972, 1974). Horren ondorioz, irlanderaren aldeko hizkuntz politikaren helburuak epe luzerako eta gradualki artikulatzen hasi ziren. Zuzenean edo zeharka *An Comhairle*-k gomendaturiko aldaketa instituzional garrantzitsuak egin ziren. 1975ean hizkuntz plangintza eta sustapenerako erakunde berri bat sortu zen, *Bord na Gaeilge* izenekoa (ikus Tovey, *Int'l. J. Soc. Lang.* 70, 1988). Gaeltacht lurraldeen garapena sustatzeko agentzia (*Gaeltarra Éireann*) 1978an berrieratu egin zen, demokratikoago bihurtzeko asmoz (ikus Commins, *Int'l. J. Soc. Lang.* 70, 1988). Gainera, ekimen mota berri hauen ildotik jarraituz, 1972an hizkuntzalaritzari buruzko ikerketa zentro nazionala eratu zen, *Institiúid Teangeolafochta Éireann*.

Hala ere, *An Comhairle*-k 70eko hamarkadako ikerketa-ekimenik garrantzitsuena abian jarri zuenean (1970ean), oraindik burutu gabe zeuden goian aipaturiko garapenetako asko. Erakunde hori sortu berria zelarik, barne azpibatzerde bat eratu zuen garai hartan hizkuntzari buruz eskura zegoen informazioaren egokitasuna aztertzeko. Gobernuaren gomendio bati jarraituz, 1970ean *Committee on Irish Language Attitudes Research* (Irlanderarekiko Jarrerren Ikerketarako Batzordea) eratu zen. Bi gai aztertzea eskatu zitzaion:

(1) Garai hartan jendeak zuen jarrera, bai hizkuntza berarekiko, eta bai irlandera komunikazio hizkuntz gisa berrezartzeko egiten ziren ahaleginekiko.

(2) Noraino lagunduko ote zuen jendeak hizkuntz politika berria aurrera eramaten, hau da, irlandera maila desberdinetan komunikazio-hizkuntz gisa berrezartzeko aukera gehiago emango lituzkeen

politika berria.

Ikerketa horretan jendearen jarrerarekiko adierazten zen kezkak garbi uzten zuen garai hartan oztoporik handienetako bat jendearen laguntza eza zela.

Oraindik lanaren hasieran zeudelarik, Batzordeak erabaki zuen ez zela egoki izango ikerketa jarreretara soilik mugatzea. Funtsezkotzat jo zen jarrerak beste gai batekin zuzenean lotzea: *hizkuntz performantziarekin, alegia*. Batzordearen iritziz, bestalde, gutxi gora-behera arreta berbera eskaini behar zitzairen beste faktore batzuri ere, hipotesi mailan jarreraren eta performantziaren artean «parte hartzen» duten faktoreei, alegia. Faktore horien artean garrantzitsuena hizkuntza bietan trebetasuna izatea litzateke. Horrela, ikerketa-diseinu berri bat sortu zen; alde batetik hizkuntz jarrerazko, erabilerazko eta trebetasunezko ereduak ezarri zituen, eta bestetik egoera elebidunaren hiru dimentsio horien arteko erlazioak ere arautu zuen.

Metodologiari dagokionez, Batzordeak batez ere ikerketa soziala aukeratu zuen. Goian aipaturiko hiru dimentsioak (jarrerak, erabilera eta trebetasuna) eta bertan parte hartzen duten beste aldagai batzuk neurtzeko eta aztertzeke moduan egituratu ziren galderak. Ikerketa-laginak aukeratzeko biztanlego nazionala (N=2.443) eta irlandera hiztunen ohizko lurraldeak (N=542) hartu ziren kontutan. Beste ikerketa batzuk ere egin ziren irakasle, ikasle eta funtzionarioen artean. Ikerketa azpi-nazional bakoitzean berariazko talde horri dagokion berariazko materialak sartzen dira, baina baita adierazle nagusiak ere. Ikerketa guztiak 1973an burutu ziren, eta Batzordeak 1975ean argitaratu zituen bere emaitzak.

Batzordearen lanetik ateratako ondorioak amaiera eman zien 1958tik 70eko hamarkadaren erdialderaino nagusi ziren *ad hoc* prestaketei hizkuntz politika eta garapen mailan. 1975erako *Bord na Gaeilge* jadanik eratuta zegoen, eta *Institiúid Teangeolaíochta Éireann* (ITÉ) lanean ari zen, oso langile gutxi izan arren. Akordio baten bidez, *Committee on Irish Language Attitudes Research* (CLAR) edo Irlanderarekiko Jarreraren Ikerketarako Batzordeak bildutako informazio corpus handia ITÉren eskuetan utzi zen, eta honek sakonkiago aztertu zuen informazio corpusa, bai bere langileekin eta bai kanpoko aholkulariekin ere (Ó Riagáin 1978, Tovey 1978). Gero, ITÉ ikerketa-programa bat garatzen hasi zen bere kasa, CLAR-en informazioarekin zerikusirik gabe, erabakiak hartzen dituzten erakundeekin harreman estuak izanik, eta maiz berarekin lankidetzan. Gutxi gora-behera 1977tik aurrera zenbait ikerke-

---

**«Batzordeak erabaki zuen ez zela egoki izango ikerketa jarreretara soilik mugatzea. Funtsezkotzat jo zen jarrerak beste gai batekin zuzenean lotzea: hizkuntz performantziarekin, alegia»**



**«80ko hamarkadaren hasieran behar berri bat sortu zen: hizkuntz performantzia, jabetzean eta jarreretan antzematen ziren joerak noiztean behin kontrolatzeko sistema baten beharra, alegia»**

ta egin dira irlandezko murgilketa-eskolek gero etxeetan erabiltzen den hizkuntzarengan duten eraginari buruz (Ó Riagáin eta Ó Gliasáin 1979) hizkuntzaren iraupenari eta hizkuntz aldaketei buruz Gaeltacht-etan (Ó Gliasáin 1980, Ó Riagáin 1982a) eta irlandezko oinarrizko eskoletan zuen egoerari buruz (Harris 1984).

80ko hamarkadaren hasieran behar berri bat sortu zen: hizkuntz performantzia, jabetzean eta jarreretan antzematen ziren joerak noiztean behin kontrolatzeko sistema baten beharra, alegia. 70eko hamarkadan egindako ikerketarik garrantzitsuenak lehen hiru urteetakoak ziren, eta 1980ko hasierarako jadanik zaharkitu xamarrek, geratzen ari ziren erabakiak hartu behar zituztenentzat. Beraz, 1982/83an ITÉk ikerketarik garrantzitsuenetako batzuk errepikatu zituen, hau da, lagin nazionala (N=791) eta Gaeltacht-ekoa (N=153). Aurreko galdeketen atal asko berriz erabili ziren, baina onuragarriak izan ez ziren galderak kendu eta beste berri batzuk sartu zituzten (Ó Riagáin eta Ó Gliasáin 1984, Ó Riagáin argitaratu gabea, a).

#### IKERKETA NAZIONALEN EMAITZA/AURKIKUNTZA NAGUSIAK

1970az geroztik burututako ikerketen ekarpen metagarriak asko areagotu du arazo nagusiei buruzko ezagupen maila, eta asko hobetu du ikerketen maila teknikoa. Ekarpentik garrantzitsuenak 1973an eta 1983an egindako ikerketa nazionaletan sortutakoak izan ziren, baina beste zenbait azterketa txikiagok ere gai zehatz batzuri buruzko argitasunak ere ekarri zituzten. Artikulu honen hurrengo ataletan laburki aztertuko ditugu ikerketa nazionalen aurkikuntza nagusietako ezauzgarri batzuk, bost ataletan banaturik: (a) irlandez mintzatzeko gaitasuna; (b) irlandezaren erabilpena gizartean; (c) irlandezarekiko eta hizkuntz politikekiko jarrera publikoak; (d) elebitasunaren sorkuntza eta birsorkuntza; eta (e) gizarte-maila eta irlandera. Zenbait joera agerian uztearren, konparaketa bat egingo dugu 1973ko eta 1983ko ikerketen emaitzen artean; gainontzean, hemen aurkezten den irudi/ikuspegia bi ikerketa horien gainbegirada bateratuan oinarritzen da.

#### A. IRLANDERAZ MINTZATZEKO GAITASUNA

Gai honen inguruan galdera berbera egin zen bi ikerketetan. Galde-tuari bere gaitasuna (eta bere familiaritate batzuen) ebaluatzea eskatzen zitzaion, sei puntuko eskala baten bidez «Ezer ez»etik hasi, eta «Ama hizkuntza»ren gaitasuneraino iritsiz. Galdera horiei 1973an eta 1983an emandako erantzunak 3. taulan agertzen dira, bai erantzuten

duenari buruz, eta bai familiako beste bi kideri buruz ere.

3. Taula. Galdetuaren eta familiako bi kideren mintzamen gaitasuna (ehunekoetan), 1973 eta 1983ko ikerketa nazionaletan.

	Galdetuaren ama		Galdetua		Galdetuaren seme-alabarik zaharrena	
	1973	1983	1973	1983	1973	1983
1.Ezer ez	50	37	21	16	12	11
2.Hitz batzuk	22	23	27	32	17	12
3.Esaldi simple batzuk	12	13	22	19	22	22
4.Elkarrizketa batzuk	5	8	17	20	23	31
5.Elkarrizketa gehienak	3	4	10	10	19	21
6.Ama-hizkuntza	4	2	3	3	5	2
7.Aplikaezina/informaziorik ez	4	13	-	-	2	1
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: *Committee on Irish Language Attitude Research (1975); 'O Riagáin eta 'O Gliasáin (1984)*

Kontuan izanik erroldaren datuen arabera irlandez mintzo direnen batezbesteko proportzioa %31koa dela (eta helduen artean %28koa), garbi samar ikusten da ikerketa xeheago horrek askoz ere irudi aldakorragoa ematen duela. Bai, bi neurketen arteko erlazioa zuzenean konpara daiteke, zeren 1983ko ikerketan ere galdetzen baitzen ea zein taldeetan sailkatu zuten 1981ko biztanleen erroldan. Eta espero zitekeen bezala, lehen gutxi edo ezer ez hitz egiten zuten ia guztiek, «ezer ez»ekoen taldean sartu ziren, eta beste muturrean, goiko bi mailarik altuenetan zeudenak irlandera hitzun gisa azaldu ziren erroldan. Beren buruak hirugarren eta laugarren taldeetan sailkatu zutenak, ordea, ez zeuden hain ziur nola erantzun erroldaren galdera zuzenari. «Ez dakit» erantzun zutenak alboan utziz gero, talde horretako %40a azkenean irlandera hitzunen taldean sartu zen. Beraz, horren arabera, guztira biztanleen %13ak soilik hartzen du bere burua irlandar hitzuntzat inolako zalantzarik gabe, eta beste %10-15 batek irlandez mintzo dela dio, baina bere gaitasuna mugatua dela onarturik.

3. taulan ikus daitekeen bezala, egoera nahiko egonkorra da 1973 eta 1983 artean. Hala ere, belaunaldien arteko aldaketak nabariak dira (guraso, galdetu eta seme-alaben artean), baina hobekuntzak batipat gaitasun maila ertainetan gertatzen dira. Epe luzeko hobekuntzak txikiak

---

**«Biztanleen %13k soilik hartzen du bere burua irlandar hiztuntzat inolako zalantzarik gabe»**

izan dira elebidun trebeen artean (eskalako 5. eta 6. mailakoak), eta gorakada hori gelditzen ari dela dirudi.

Estatu mailan gertatutako aldaketa demografikoak, espazialak eta sozialak jadanik eroldan agertutakoei dagokie. Gaitasun maila handiko pertsona gehiago daude ondoko talde hauetan besteetan baino: Gaeltacht-en bizi direnak, hezkuntza-maila altukoak eta lanbidez profesionalak edo administrariak direnak.

#### *B. IRLANDERAREN ERABILPENA GIZARTEAN*

Helduen artean 1983an egindako ikerketan besteak beste honako galdera hau egin zitzaion: «Joan den aste honetan elkarrizketarik izan al duzu irlandaraz?». Ehuneko bederatzik baietz erantzun zuen, baina inkestak ez du argitzen zenbat aldiz erabili zen. Hala ere, jende multzo zabala agertzen da elkarrizketa horietan inplikaturik (senideak eta lagunak, lankidea, eta abar). Ikerketa berean maiztasunari buruzko galdera ere egiten zen, etxean eta lanean zenbat erabiltzen zuten jakiteko; %5ak «beti» edo «maiz» erantzun zuen. Irakurketa eta idazketa-ri dagokionez, erabilera berdintsua edo are txikiagoa da. Hala ere, galdetuen artean gutxi gora-behera %45a ez zen lanean ari garai hartan. Datu horren arabera zenbait aldaketa egin behar dira; beraz, lanean ari zirenen artean %11k erabiltzen zuten irlandera «gutxienez astean behin» edo gutxiagotan.

Emaitza horiek helduen artekoak dira. Eskolan dauden gazteen egoera ez da berdina. Hezkuntza Sistemaren lehen eta bigarren mailetan dauden haur guztiek derrigorrez ikasi behar dute irlandera. Hezkuntza derrigorrezkoa da 15 urte egin arte, eta gainera 16-18 urteko gehienek ere ikasten jarraitzen dute; beraz, ume gehienek irlandera ikasten dute lau urtetik 18ra bitartean. Horrek nahitaezko ondorio bat dakar: gattetxoek ia egunero dute irlanderarekin zerikusirik ikasgelan. Gainera, gutxi gora-behera umeen %5ak ikasten ditu gai guztiak irlandaraz, eta pixka bat gehiago dira zenbait gai irlandaraz ikasten dituztenak. Horrez gain, gazte helduen (30 urtetik beherakoen) %20ak esan zuten 1983ko inkestan irlandera erabiltzen zutela ikasgelaz kanpoko elkarrizketetan eskola garaian.

Gutxiengoaren hizkuntz erabileraren proportzio horien konparaketa eginez gero, garbi ikusten da pertsona elebidunek ez dutela bizitza guztian zehar maila berean erabiltzen hizkuntza. Eskola garaia da erabilerarik handienekoa, eta horren ondoren, askok ez dute gehiago erabiltzen. Bestalde, zenbait pertsona heldutasun aroan hasten dira (eta

ez haurtzaroan) irlandera erabiltzen, bai harreman sozialetan eta bai lanean ere (CLAR 1975: 204). Hori bakarrik ez; helduei dagokionez, ez da oso erlazio zehatzik ikusten etxean, lanean eta harreman sozialetan ematen den erabileren artean. Hau da, etxean irlandera erabiltzeak pentsarazten du beste testuinguruetan ere erabiliko dela, baina lanean edo beste harreman sozialetan erabiltzeak ez du esan nahi etxean ere erabiliko denik.

Etendura edo aldakortasun horiek garbi uzten dute elebitasunak egoera ahula duela gizarte irlandarrean. Ez litzateke egoki izango «lurralde-tasun» kontzeptua erabiltzea irlandar elebitasuna deskribatzeko orduan (hau da, Gaeltacht komunitateez kanpo, zeren komunitate horietan kontzeptu horrek badu nolabaiteko garrantzia). Irlandan elebitasunaren oinarri nagusiak familia- eta gizarte-sare ahulak dira bati-pat, eta sare horiei eusten laguntzen dieten zenbait erakunde daude (hezkuntza, lantokiak eta komunikabideak). Azpimarragarria da, esate baterako, irlandera normalean baino gehiago erabiltzen den testuinguruak (eskola eta lantokia) iraganean laguntza bereziak jaso zituztela estatuaren aldetik. Eskolen testuinguruaren egoera jadanik azalduta dago. Lanari dagokionez, lanean irlandera mintzo diren gehienak sektore publikoan ari dira, eta horietako leku askotan irlandera eskatzen da lana lortu ahal izateko. Bestalde, jendeak ere espero izaten du langile horiek irlandera jakitea.

Kokaleku geografikoari dagokionez, desberdintasun nabarmenak daude leku batetik bestera. Bereizketarik nabarmenena mendebaldeko kostaldearen eta gainontzeko lurren artean dago. Mendebaldean, *Gaeltacht*-etan askoz gehiago mintzatzen da irlandera beste lekuetan baino. Adibidez, lurralde horietan %58ak zioen etxean maiz eta asko erabiltzen dela irlandera (eta estatu mailan %5 besterik ez). Lanean eta harreman sozialetan ikus daitezkeen desberdintasunak antzekoak dira.

Hizkuntz mintzatuaren proportzio txiki horiekin konparatuz gero, erabilera pasiboa askoz handiagoa da, batez ere telebista zenbat ikusten eta entzuten den kontutan hartuz. 1983an elkarrizketaturikoen artean %20ak esaten zuen astean «behin baino gehiagotan» ikusten zutela telebista programak irlandera. Beste zenbait ikerketatan ere antzeko emaitzak lortu izan dira, eta horrek adierazten duen bezala, ahozko hizkuntzan erabiltzen ez den elebitasun potentzial bat badago komunitatean. Hala ere, arestian aipatutakoa ebaluatzerakoan ezin dugu ahaztu gutxi direla irlandera ikus daitezkeen telebista-programak. 1985ean, adibidez, egunean hamar minutuko berri-emankizuna eskaintzen zen Irlandako bigarren katean (gutxien ikusten dena), eta astean

---

«Lanean ari zirenen artean %11k erabiltzen zuen irlandera "gutxienez astean behin" edo gutxiagotan»

---

**«Umeen %5ek ikasten dituzte gai guztiak irlandera, eta pixka bat gehiago dira zenbait gai irlandera ikasten dituztenak»**

zehir beste ordubete edo bi orduko programa bat ematen zuten, «magazine» modukoak, berriak eta entretenimendu arinak tartekatuz. Aurreko bi hamarkadetan ere egoera antzekoa izan zen.

Espero zitekeen bezala, lotura estua dago gaitasun eta erabilpen mailen artean. Oro har, irlandera gaitasun-maila handia dutenak soilik dira hizkuntza hori maiz erabiltzen dutenak. *Gaeltacht*-eko gune txikitatik kanpo heziketa-maila altuko jendearengan soilik aurki daiteke gaitasun maila handia. Beraz, erabilera-ereduetan ere antzeko desberdintasun sozial eta espazialak aurki daitezke. Ingelesa nagusi den lurraldeetan, oro har, irlandera maila sozioekonomiko altua duten taldeetan erabiltzen da, hiri handietan.

Bi inkesta nazional horietako emaitzak ikusita, ondorio gisa esan daiteke irlandera nahiko egoera egonkorra ezagutu izan duela 1973 eta 1983 artean. Hala eta guztiz ere, jendea galdetu zitzaionean zer nolako pertzepzioa zuen irlandera erabilera publiko edo sozialari buruz, -beren erabilpen pertsonalarekin zerikusirik gabe- erantzunak ezezkor samarrak ziren; beren iritziz, 1983an gutxiago erabiltzen zen irlandera bizitza publikoan 1973an baino. Horrek nolabaiteko zerikusirik izan dezake beste datu honekin: 1983an elkarrizketatuak izan zirenen iritziz pertsonaia eta erakunde publikoek ez zuten irlandera bultzatzen.

#### C. IRLANDERAREKIKO JARRERA PUBLIKOAK

60ko hamarkadan hizkuntz politikari buruzko eztabaidan agertzen ziren bi aldeak ados zeuden hizkuntz politika ez zetozeela bat iritzi publikoaren eskaerekin, baina ez ziren ados jartzen egoera horri zein erantzun eman behar zitzaion erabakitzeko orduan. Ez da kasualitatea lehen ikerketa handiaren kezka nagusia hauxe izatea: irlandera eta bere inguruko hizkuntz politikek jendearen artean zuen onespina eta laguntza-maila zein zen jakitea. Batzordearen izenak berak (*Committee on Irish Language Attitudes Research* - Irlandarekiko Jarreraren Ikerketarako Batzordea) eta bere idatziek oso argi uzten dute beren helburua.

Horren ondorioz, 1973ko inkestan galdera mordo bat sartu zen, jendearen jarreraren gora-beherak eta xehetasunak ahalik eta hobekien ezagutzeko asmoz. Faktore-analisiaren erabilerrari esker sei edo zazpi taldeetan banatu zen informazio guzti hori. Banaketa mota horrek egokia zirudien, bai logikoki eta bai estatistikoki ere. Laburbilduz, honela zioen Batzordearen azken txostenak:

«Oro har, badirudi jendeak nahiko balio handia ematen diola irlandearen paper sinbolikoari, bai identifikazio etnikoaren mailan eta bai berezko balio kultural gisa. Baina nahiz eta hori izan jarrerazko elementu nagusia (eta indartsua denez nahikoa da irlandearen transmisioa bermatzeko gogoia bultzatzeko), badirudi hizkuntzaren etorkizunari buruzko irudi ezkorra dela nagusi, eta gehiengoaren iritziz irlandera ez dela egokia bizitza modernorako» (Committee on Irish Language Attitudes Research 1975: 229)

Irudi orokor horren barnean, hala ere, desberdintasun ugari nabari zitezkeen. Normala den bezala, irlandera mintzo den lurretan jendearen jarrera askoz baikorragoa zen, eta gainontzean, berriz, hezkuntza-maila altuagoa zutenak ziren irlandera gehien bultzatzen zutenak. Garrantzia bereziko emaitza bat ere aurkitu zen: erlazio zuzena zegoela gizarte maila altuagotara mugitzen ari ziren taldeen eta irlandearrekiko jarrera positiboen artean, batez ere gorakada hori hezkuntza-mailaren hobekuntzari lotuta zegoenean.

ITÉk 1983an egindako ikerketa nazionalako emaitzen arabera jarrerak ez ziren gehiegi aldatu. Informazio hori guztia oraindik hobeto aztertu behar da, baina badirudi jendearen jarrera oso gutxi aldatu zela hamar urte horietan. Agian aldaketatxoren bat izan da irlandearak identifikazio etnikoan jokatzeko duen paperean, piska bat indartu dela baitirudi; hala ere, horrek ez du ezertan aldatu jendearen ezezkortasuna hizkuntzaren etorkizunari buruz. Hala ere, inkesta honen aurretxostenean agertzen diren beste zenbait estatistikek zalantzak sortarazten dituzte itxurazko egonkortasun horren inguruan. 1983ko inkestan garbi agertzen zen jarrerak ez direla, oro har, aldatu, baina aldi berean iritzi horiek ez dira hainbesteko ziurtasunez adierazten. Erantzunak emateko moduak erakusten zuenez, jendeak «epelki» adierazten zituen iritzia, bai aldekoak eta bai aurkakoak ere. Bestalde, politika zehatzen inplementazioari buruzko galderetan nabarmena zen «ez dakit» erantzuten zutenen gorakada. Oraindik azterketa sakonago baten emaitzen zain egon beharko dugu, baina agian jadanik esan daiteke «Irlandearen auzia» garrantzia galtzen ari zela iritzi publikoaren begietan hamarkada horretan.

Irlandearen aldeko jarreraren eta erabilera-mailaren proportzioen inguruan sortzen diren desadostasunak berak garbi erakusten du zein garrantzitsuak diren jarrerak hizkuntz mailako aldaketa-prozesuetan (Edwards 1984). 1973ko inkestaren zuzendariek, Brudner eta White-k, honela esaten zuten lanaren ondoren argitaratutako testu batean:

«Hizkuntzarekiko jarrerak, Irlandan, oso egituratuta daude, koherenteak dira

---

«Irlandan elebitasunaren oinarri nagusiak familia eta gizarte-sare ahulak dira batipat, eta sare horiei eusten laguntzen dieten zenbait erakunde daude (hezkuntza, lantokiak eta komunikabideak)»

---

**«Normala den beza-  
la, irlandera mintzo  
den lurretan jendea-  
ren jarrera askoz  
baikorragoa zen, eta  
gainontzean, berriz,  
hezkuntza-maila al-  
tuagoa zutenak ziren  
irlandera gehien bul-  
tzatzen zutenak»**

eta arinki loturik daude hizkuntz erabilerarekin, baina ez dirudi inolako era-  
gin independenterik duenik norbanakoaren hizkuntz portaeran... Ezin dugu  
esan irlandereko jarrera baikorra nahikoa denik hizkuntz hori erabiltzeko,  
ez baikenuen horren frogarik aurkitu... hizkuntz erabilera aurrikusi nahi bada,  
eta arriskuan dagoen hizkuntzaren iraupena edo beherakadan eraginik duten  
faktoreak ere aurrikusi nahi badira, orduan kontutan hartu behar dira erabile-  
ra-testuinguruak, erreferentzi taldeak eta sareak, eta bestelako presio sozia-  
lak edota indibidualak» (Brudner and White 1979: 65).

Hala ere, hizkuntzarekiko jarrerak estuki eta positiboki koerlaziona-  
turik daude hizkuntz politiken aldeko joerekin, eta hain zuzen tes-  
tuinguru horretan dira garrantzitsuak Irlandan, ez baitute hainbeste-  
rainoko garrantziarik hizkuntz erabileraren sustatzaile gisa.

#### *Hizkuntz politikekiko jarrera publikoak*

Bi inkesta horietan galdera ugari egiten ziren hizkuntz politikaren al-  
derdi orokor eta zehatzei buruz. 1973an eta 1983an %70ak erantzun  
zuen elebitasunaren alde leudekeela baldin eta gaitasun oztopoak gain-  
dituko balira. Bestalde, beste hainbesteren iritziz hizkuntz politikaren  
helburuak garrantzitsuak izaten jarraituko lukete, baita Gaeltacht-en  
hizkuntz beherakada itzulerarik gabekoa bihurtuko balitz ere.

Hizkuntz politikaren aplikazio eremu zehatzei dagokienez, gehiengoak  
ondoko neurri hauen alde agertzen zen: irlanderari Gaeltacht-en eus-  
tea, irlanderazko programak eskaintzea telebista-kate nazionaletan,  
ohar publikoetan eta antzeko iragarkietan irlandera erabiltzea, esta-  
tuko zerbitzuak irlanderaz eskaintzea eta funtzionarioei irlanderaz min-  
tzatzen jakitea eskatzea, dialekto estandar bat sortzea, eta irlandera-  
ren aldeko bolondresen erakundeak bultzatzea. Gai guztietan jendea-  
ren aldeko joerak gora egin zuen 1973 eta 1983 artean. Hala ere nahiko  
erantzun harrigarriak jaso ziren jendeari galdetu zitzaionean ea beren  
iritziz gobernu indarrez eta eraginkortasunez aplikatzen ari ote zen  
politika horiek. Oro har, gehiago ziren 1983an gobernuak irlanderaren  
alde gutxiegi egiten zuela ziotenak (%33 1983an, eta %17 1973an). Bes-  
talde, %25en iritziz hizkuntz politika okerra zen (1973an %9). Goian  
aipaturiko eremuei dagokienez, gero eta jende gehiagok uste zuen hiz-  
kuntz politika ez zela eremu horietan burutzen. Dena den, ezin da  
ahaztu galdera guztietan gehiago zirela «ez dakit» erantzuten zute-  
nak 1983an, 1973an baino (zenbait kasutan %25etik gora ziren).

Jende gehienak hezkuntz sistemaren bidez ezagutzen du hizkuntz  
politika. Bi inkestetan hezkuntzari buruzko galdera asko sartzen dira,

eta horrek garbi adierazten du zein garrantzitsuak diren hezkuntza-  
ren inguruko gaiak. 1973an %70ak pentsatzen zuen haur guztiek ikasi  
behar dutela irlandera eskolan, baina beste zenbait galderak garbi uz-  
ten zuten hein handi batean jendea ez dagoela gustora helburu hori  
lortzeko erabiltzen den politikarekin. Garai hartako derrigortasuna zen  
arazorik handienetako bat: %30a bakarrik zegoen ados irlandera de-  
rrigorrezko gai izatearekin estatuko azterketetan. Gainera, «gehiengo-  
goaren iritziz irlanderak eskolan zuen lekuak haurren aurrerapena oztopatu  
egiten zuen eta porrotak areagotzen zituen azterketetan, zigorrarekin eta erre-  
suminarekin lotzen zen, eta oso emaitza kaxkarrak eragiten zituen haurren  
etorkizuneko hizkuntz gaitasunari dagokionez» (Committee on Irish Lan-  
guage Attitudes Research 1975: 29). Bestalde, nahiko hedatua zegoen  
murgilketa-programei buruzko iritzia ezkorra; jendearen aburuz, pro-  
grama horiek umeen hezkuntz aurrerapena geldotu egiten zuten.  
1973an Hezkuntza Ministeritzak erabaki zuen handik aurrera irlande-  
ra ez zela derrigorrezkoa izango estatuko azterketetan. Neurri batean  
horren ondorioz, 1983ko inkestan jarrera baikorrago somatzen zen ir-  
landerak eskoletan zuen lekuari buruz.

Gai horien inguruan aldeko iritzia dutenen proportzioak gutxienez 10  
puntutan igo ziren. Oraindik gehiengoaren iritziz (%66) eskoletan ez  
da nahikoa irlandera irakasten, edota ez dute nahiko ongi irakasten  
(helduaroan erabiltzeko moduan), baina gai horiei buruz iritzia ezezko-  
rrak zituen «gehiengo garbia» desagertu egin da (Ó Riagáin eta Ó Gli-  
sáin 1984, 8).

1983an sartutako zenbait galdera berrik jendearen iritzia hobeto eza-  
gutzen lagundu zuen. Galdera orokor bat egin zen, hizkuntz politikan  
lehentasunak non ezarri beharko liratekeen galdetuz. Gehiengoak  
(%63) hizkuntz politika aukeratu zuen hizkuntzaren estrategia berriak  
egiteko elementu nagusi gisa. Baina haur «gehienentzako» zein irakas-  
kuntz eredu nahiago zuten galdetzerakoan, %72ak ikasgai gisa soilik  
irakastea nahi du, eta %25ak bakarrik nahi du nolabaiteko elebitasuna  
eskolan. Azken hauetatik, erdiak baino gehiagok nahi zuen ikasgaien  
erdiak irlanderaz eta beste erdia ingelesez irakastea. Erabat irlanderaz  
irakastea, hau da, murgilketa ereduaren alde zeudenak %8a besterik  
ez ziren, baina %20-24ak esan zuen bere haurrak horrelako eskoletara  
bidaliko lituzkeela.

#### D. ELEBITASUNAREN SORKUNTZA ETA BIRSORKUNTZA

Jadanik aipatu den bezala, irlanderaz mintzo diren taldeek birsortze-  
ko duten gaitasuna oso mugatuta dago (besteak beste tamaina txikia-

---

«Oro har, gehiago zi-  
ren 1983an gober-  
nuak irlanderaren  
alde gutxiegi egiten  
zuela ziotenak»



---

**«%30 bakarrik zegoen ados irlandera derrigorrezko gaitatearekin estatuko azterketetan»**

rengatik, banaketa arinagatik eta iragankortasunagatik). Irlandera hiztunen familietan nolabaiteko jarraikortasuna edo iraupena nabari daiteke belaunaldiz belaunaldi, baina hizkuntza galtzen dutenak askoz gehiago dira eusten dutenak baino. Gaeltacht-etatik kanpo bizi diren eta irlandera hazi zirenen artean %25ak bakarrik erabiltzen du irlandera helduarotan normaltasun osoz. Beraz, azken hamarkada horietan elebitasun mailak gutxi gora-behera maila berean iraun badu, neurri handi batean hezkuntz sistemari esker izan da, belaunaldi berri bakoitzean pertsona elebidun berriak «sortzen» ditutelako, eta pertsona horiek betetzen dutelako hizkuntz sarean geratzen diren hutsuneak, jende helduak irlandera albo batera uzterakoan geratzen diren hutsuneak, alegia.

Hezkuntza sistema, beraz, eginkizun apal hori betetzeko gai izan da. Erabilera-mailari dagokionez %5-10eko elebitasun maila onargarria bada ere, maila baxu horri eusteko behar-beharrezkoa da belaunaldi bakoitzean hori baino hitzun-kopuru askoz handiagoa lortzea. Eta horren arrazoia, noski, nahiko sinplea da: irlandera mintzo direnak ingeles hiztunen artean oso sakabanaturik daudenez, oso normala da jende askok bere gaitasuna galtzea. Gaitasunari buruzko informazioa batez ere erantzuten duenaren iritzi pertsonalean oinarritzen denez, oso zaila da zehatzak izatea, baina badirudi hezkuntza sistemak talde bakoitzeko %10-15 hitzun (gaitasun maila handikoak) sortzen duela (Ó Riagáin, argitaratu gabea, b).

Aipatu izan dugun bezala, hezkuntza sisteman «murgilketa-eskola» asko zeuden 50eko hamarkada arte. Gero, indarra galtzen hasi ziren, eta beste eredu bat nagusitzen joan zen: irlandera ikasgai gisa irakatsi, eta beste gutxia ingelesez egiten zuena, alegia. Aurrerago, 1973an irlandera derrigorrezko izateari utzi zion estatu-azterketetan. Beraz, helduen artean egindako bi inkestak egokiak ziren programa mota horiek epe luzeko erabileran zuten eragina neurtzeko. 1973an lortutako materialen azterketa sakonak garbi adierazten du epe luzerako trebetasunak eta irlandera erabiltzeko konpromezuak lotura estua dutela eskoletako hizkuntz programen iraupena eta intentsitatearekin. Esate baterako, murgilketa-eskolan ikasi zutenek hamar aldiz aukera gehiago dituzte geroan ere irlandera erabiltzen jarraitzeko besteek baino, hau da, irlandera ikasgai gisa soilik ikasi dutenak baino.

Irlandera «ikasgai gisa» soilik ikastea gaur egungo hezkuntza testuinguruan nahiko esperientzia garrantzitsua da, haurrek bataz beste 13 urtez ikasten baitute irlandera eskolan. Hala ere, prozesu horrek ez ditu irlandera oso erabiltzaile trebeak sortarazten. Eta sortarazten

dituenean, horrek esan nahi du ikasle horiek denbora luzez ikasi dutela, eta ikasketa-plangintzarik gogorrenak hartu dituztela. 1983an, irlandera hiztunen ia hiru laurdenak gainditu zuten oinarrizko eskola eta ikasten jarraitu zuten, eta ia erdiek ikasi zuten irlandera goi mailan. Hala ere, 1980tik aurrera %10-15ak bakarrik aukeratzen ditu goi mailako irlandera ikastaroak oinarrizko eskolaren ondoren. Eta 13 urtez ikasi ondoren gehiengoaren mintzatzeko gaitasuna nahiko ahula da. Gutxiengo baten kasuan, oso ahula ere bada, eta gainera gutxiengo hori gero eta handiagoa da (Ó Riagáin 1982b, Bord na Gaeilge 1986). Gaitasun handia duten ikasle guztiak ez dira, ordea, hizkuntzaren erabiltzaile bihurtzen helduaroan. Lehen esan bezala, bi inkestetan garbi azaltzen da jende askok mintzatzeko gaitasuna galdu egiten duela eskola utzi ondoren. Baina ezin dugu ahaztu pertsona elebidun aktibo gehienak eskolatik sortzen direla.

1973ko azterketak beste datu bat ere argitaratu zuen: irlandera mintzo ziren helduen kopuru garrantzitsu bat (%30 inguru) helduaroan hasi ziren irlandera hitz egiten. Hauek ez zuten etxean ikasi, eta ez dirudi eskolan inolako lotura edo interes berezirik zutenik hizkuntzarekiko. Azterketan ez da oso garbi geratzen nola eta zergatik hasi zen talde hori irlandera erabiltzen, baina iraganean badirudi «ezkontzerakoan edo beren etxean bizitzen hasi zirenean» ekin ziotela irlandera erabiltzeari (Committee on Irish Language Attitudes Research 1975: 212). Talde honetan sar ditzakegu «erabat irlandera» irakasten dituzten eskoletako haurren guraso gehienak, eta badirudi eskolak lagundu egiten duela etxeetan nolabaiteko elebitasuna bultzatzen eta gurasoak irlandera mintzo den giroetan sartzen (Ó Riagáin eta Ó Gliaáin 1979).

Nahiz eta txikia izan, horrelako talde bat existitzeak esan nahi du irlandera sareek nolabaiteko gaitasuna badutela kide berriak biltzeko. Horrekin batera, ordea, ezin dugu ahaztu dirudienez ez direla gai sarea iraunkor bihurtzeko, elebidunen birsorkuntza eraginkorra ziurtatzeko, ezta etxeetako eta eskoletako ekoizpen elebiduna bereganatzeko ere.

#### *E. GIZARTE-MAILA ETA IRLANDERA*

Gaur egun arte elebitasunari buruz egin diren ikerketen ezaugarrien artean, deskribatzaileak izatea azpimarra dezakegu. Ikerketa sistematikoaren lehen hamarkadan beharrezkoa zen, noski, oinarri sendoak jartzea, elebitasunak Irlandan duen eragin espaziala eta soziala argitzea, eta denboran zehar eredu horiek izan dituzten joerak aztertzea. Baina duela urte gutxi batzuk arte ez dira eredu horiek Irlandako al-

---

«Irlanderaz mintzo diren taldeek birsorkuntzako duten gaitasuna oso mugatuta dago»

---

*«Irlanderaz mintzo direnak ingeles hiztunen artean oso sakabanaturik daudenez, oso normala da jende askok bere gaitasuna galtzea»*

daketa sozial eta ekonomikoen prozesu zabalekin lotzen hasi. Hannan eta Tovey-k adibidez, 1978an aztertu zituzten hiru elementu hauen arteko erlazioak: nortasun etnokulturala (hor sartzen dira, besteak beste, hizkuntzarekiko jarreraren elementuak), estatus soziala eta lanbideen ezaugarriak. Erlazio horiei buruzko eztabaida inguratzen duen testuinguru teorikoaren iturburua azken urteotan aldaketa eta garapen sozialari buruz egindako lan teorikoa da. Lan horien arabera, XIX. mendean eta XX.aren hasieran Irlanda gero eta gehiago integratu zen sistema britainiar zabalean, bai ekonomikoki eta bai politikoki ere. Baina 1922. urtearen ondorengo garai post-kolonialean bi estatus-sistema elkarren aurka jardun dira boterea edo nagusigoa eskuratu nahian. Sistema bat independentzia aurreko eragin britainiarrean oinarritzen da, eta bestea, berriz, nortasun etniko «irlandarrean» oinarritutako alternatiba bat ezartzen saiatzen da. Espero zitekeen bezala, bi sistema desberdin hauek garrantzia desberdina ematen diote gutxiengoarena, baina bertakoa den hizkuntzari.

Gutxiengoaren hizkuntza bultzatzeko politiken epe luzerako bideragarritasuna neurri handi batean beste elementu honen menpe dago: ezartzen eta mantentzen den sistema alternatiboaren arrakasta. Eta arrakasta hori, berriz, neurri handi batean eliteko talde nagusiek hartzen duten joeraren menpe egongo da, hau da, zein sistemaren alde egiten duten arabera. Hannan eta Tovey-k, adibidez, zera diote:

*«Testuinguru honetan estatus talde desberdinen artean bereizterakoan hiru faktore garrantzitsu agertzen dira: taldearen hezkuntza-maila orokorra, taldeko kideek lortu nahi dituzten lanbideak edo lan testuinguru-motak, eta taldearen estatusak zenbat adinako estatus kontraesanak dituen» (1978. 31).*

Oinarri horretatik abiatuz, ondoko hipotesi hau planteatzen dute:

Lanbidez profesionalak direnen taldeak, estatu-sistema berezi bat mantentzearen aldeko interesak eta konpromezua dutenak, eta merkaturatzeko gaitasuna hezkuntz sistema irlandarrean erroturik dutenak, normalean gehiago azpimarratzen zituzten nortasunaren alderdi etno-kulturalak. Merkataritzan eta industrian ari diren taldeek, ordea, askoz errazago onartzen zituzten eredu ingelesak, eta beraz, garrantzi gutxiago ematen zieten irlandarren sinbolo etnikoei (1978: 32).

Hannan eta Tovey-k 1973an hizkuntzarekiko jarreraren inguruan lortutako informazioari buruz egindako azterketak, argi eta garbi adierazten zuen zein garrantzitsuak diren estatusa eta lanbideak talde desberdinek hizkuntzarekiko duten jarrera aztertzerakoan.

Lan hori argitaratu zenetik, ikerketa soziologiko zabalak egin dira zenbait gai aztertzeko, besteak beste Irlandaren klase-egitura, egitura horrek denboran zehar jasandako transformazioa, eta bereziki, klasea eta hezkuntzaren arteko erlazioa (Rottman et al. 1982; Whelan and Whelan 1984). Ikerketa-multzo horrek, Bourdieu-k (1986) egindako lan teoriko eta enpirikoarekin eta beste batzuekin batera, hipotesiak egiteko iturri aberatsa eskaintzen du. Horren ondorioz, 1983ko azterketa nazionalan askoz ere informazio gehiago bildu zen jendearen klase eta lanbideari buruz.

Bourdieu-k (1984) Frantzian eredu kulturaleri buruz egindako azterketaren ildotik, garbi geratu da bereizketa xehea egin behar dela erdi, behe eta nekazal klaseen artean. Ikerketa soziologiko horretan nabaria da erlazio zuzena dagoela hezkuntza-maila eta gizarte-mugikortasunaren artean. Irlandaraz mintzatzeko gaitasun eskuratuaren mailarik altuena hezkuntza-maila altua zutenen artean zegoen, eta sektore publikoak 1970 ingurura arte lehentasuna ematen zien irlandera maila ona zutenei. Beraz, logiko dirudi ondoko hipotesi hau planteatzea: estatuak bere politikarekin erakarriko zuen jendea batipat kultur maila handia izanik (Bourdieu-k definitzen duen eran) berez diru askorik ez zutenak izatea. Sektore pribatuan, ordea, azken hamarkadetara iritsi arte, garrantzitsuagoa zen baliabide ekonomikoak izatea kultur ondare baina, eta estatuaren hizkuntz politikak egoera hori bere horretan utzi zuen. 1983an bildutako informazioaren azterketak iritzi hori konfirmatu besterik ez du egiten. Lanean diharduten elebidun gehienak, beraz, sektore publikoan daude. Bai, gaitasun-mailen eskalan (ikus 3. taula) bi lekurik altuenetan dauden irlandarren %60ak inguru sektore publikoko lanetan dihardu, eta erdi edo langile-mailako kideak dira. Pertsona mota horiek bestelako lantokietan (erdi mailan, langile eta nekazarien artean) betetzen duten proportzioa askoz txikiagoa da. Hala ere, sektore publikoaren barnean ere desberdintasunak daude: gaitasun altua duten elebidun gehienak erdi-goiko mailetan daude, eta langileen artean, berriz, gutxiago daude.

Klaseen arteko eta klase barneko desberdintasun horien arrazoiak ezin dira erabat argitu hizkuntz politikaren ikuspuntutik soilik, zeren aldagai hori bere horretan egoten denean ere desberdintasunak agertzen dira. Dirudienez, hizkuntz politikak, batez ere 1922tik 1960ra neurri batean gizarte mugikortasun prozesuaren «arauak» aldatu zituen. Hala ere, aldaketa horiek ez ziren eremu guztietan gertatu, eta ez zituen ekonomiaren sektore guztiak ukitu. Beraz, hizkuntz politikaren eragina ez zen homogenoa izan. Gainera, 1960az geroztik ekonomiak izan zuen gorakadak alde batetik sektore pribatuaren garrantzia

---

*«1922. urtearen ondorengo garai postkolonialean bi estatus-sistema elkarren aurka jardun dira boterea edo nagusigoa eskuratu nahian. Sistema bat independentzia aurreko eragin britainiarrean oinarritzen da, eta bestea, berriz, nortasun etniko "irlandarrean" oinarritutako alternatiba bat ezartzen saiatzen da. Espero zitekeen bezala, bi sistema desberdin hauek garrantzia desberdina ematen diote gutxiengoarena, baina bertakoa den hizkuntzari»*

*«Aurrera egiteko eskolako kualifikazioak behar-beharrezkoak zirenez, eskoletako eta sektore publikoko hizkuntz politikak izugarrizko presioa jasan zuen, eta estatuak jaitsi behar izan zuen bi eremu horietan eskatzen zen irlandera-maila»*

areagotu egin zuen, eta bestetik -«Iepo txuriko» lanbideak ugaritu zirenez- errazago bihurtu zen irlandearik jakin gabe aberastea edota gizarte mailaz igotzea. Gainera, aurrera egiteko eskolako kualifikazioak behar-beharrezkoak zirenez (zenbait kasutan familian bertan aberastasunak izatea baino garrantzitsuago ere bazen) eskoletako eta sektore publikoko hizkuntz politikak izugarrizko presioa jasan zuen, eta estatuak bi eremu horietan eskatzen zen irlandera-maila jaitsi behar izan zuen.

Azken iruzkin horiek hizkuntz politikaren aldaketa zein testuingurutan gertatu zen aipatu besterik ez dute egiten. Fenomeno horren azalpen sakonago eta osoago bat nahi izanez gero, itxaron egin beharko da ikerketa historikoa eta beste zenbait lan amaitu arte.

#### ZENBAIT EZTABAIDAGAI

Testu honetan bi inkesta handien irudi labur bat besterik ez da eskaintzen. Ez dago gehiago sakontzeko aukerarik, baina ondorio gisa esan daiteke arreta gehien erakarri duten alderdiak hauek izan direla: alde batetik teorikoak (ikerketatik sortutako gai teoriko, metodologiko eta «politikoak»), eta bestetik praktikoak (ikerketen emaitzak aplikatzeko asmoa oraindik bizirik dirauen hizkuntz politikan).

Azterketa nazionalaren eta beste zenbaiten emaitzek, elebitasunaren maiztasuna eta intentsitateari buruzko informazioa ematen dute, baina ez du hainbeste argitzen nolakoa den elebitasun forma hori sortzen eta mantentzen duen prozesua, edota hizkuntz politiken eraginkortasuna. Horren sustraian zenbait faktore teoriko eta metodologiko daude. Teoria mailan, esan beharra dago ikerketa horiek, hizkuntzei buruzko lan gehienak bezalaxe (Ohannessian et al. 1975) hizkuntz jarrrera, erabilera edo gaitasun-gaietara mugatzen direla. Hizkuntz jarrrerei dagokienez, faktore hori erabat mugagarria da, eta nabarmen mugatzen ditu emaitzak egokiro azaltzeko aukerak. Irlandarrek, oro har, ikuspuntu eta asmo positiboak dituzte beren hizkuntzarekiko, baina bizitza pribatua eta publikoaren beste arloetan ere beren helburu eta asmoak dituzte. Egoera orokorra piska bat ezagutzen ez bada, eta talde bakoitzaren lehentasun mailak edo gaiak zeintzuk diren garbi ez badago, oso zaila da azterketa baten emaitzak ebaluatzea, zeren bestela gizarte ihardueren arlo bakar batean geratzen baita. Jadantik esan bezala, Bourdieu-k (1984) garatutako klase-analisi motan oinarritutako ikerketa batek aurrerapen handia ekarriko luke gaur egungo ezagutza egoerarekiko.

Metodologiari dagokionez ere zenbait aipamen egin daiteke. Inkestan oinarrituriko azterketa nahiko tresna egokia da irlandeararen erabilera maila neurtzeko, baina ez da hain lagungarria beste zenbait egoeraren prozesua ulertzeko, batez ere denboran zehar elkarrekintza edo interakzioa dagoenean pertsonen eta taldeen gaitasun maila, jarrera, testuinguru eta erabilera-ereduen artean. Elebitasuna aztertzeko orduan integrazioa lortzen saiatu behar da alderdi kualitatibo eta kuantitatiboaren artean. Prozesu horien aberastasuna eta konplexutasuna hobeto ezagutzeko aukera izan genuen Dublín, beren seme-alabak irlandez ikastera bidaltzen zituzten familiei buruzko ikerketa txiki bati esker. Familia batzuek irlandez hitz egiten zuten lehen haurra eskolara joan baino lehen, baina gehienak ez. Hala ere, zati garrantzitsu bat etxean eta beste zenbait lekutan irlandera erabiltzen hasi zen beren haurrak hizkuntza ondo ikasi zutenean (Ó Riagáin eta Ó Gliasáin 1979). Fenomeno horretan eskolak duen garrantzia nabarmena da, baina ezin dugu ahaztu beste faktore bat: guraso horietatik gehienak erdi-mailakoak zirela, eta sektore publikoan egiten zutela lan.

Hizkuntz politikari dagokionez, prozesu sozial horiek ondo ulertu eta ezagutu arte oso zaila da zer eragin izan dezakeen horrek guztiak hizkuntz politika mailan. Adibidez, nola jakin dezakegu arrakasta edo porrota ote den %10ak hitz egitea bultzatu nahi den hizkuntza? Gauza bat garbi dago: 1930eko eta 1940ko berpizkunde erretorikak zioenarekin konparatuz gero, emaitzak oso kaskarrak dira. Hala ere, gizarte politikaren helburuak maiz --edo agian beti-- handiegiak izaten dira (Rossi 1984, Cronbach et al. 1980). Beraz, gai horretan Irlanda edota irlandeararen hizkuntz politika ez dira salbuespen izan. Ikerketen emaitzak lortzen hasi baino lehen, Irlandako gobernuak jadanik lurra galtzen hasiak ziren. Hizkuntz politikaren azken helburuak piskanaka aldatzen joan ziren, «berpizkundetik elebitasunera», eta azken urteotan «hizkuntz maila mantentzera» edota gutxiengoaren hizkuntzaren «iraupenera». Eta esan beharra dago azken helburu apal hauek lortzeko ere arazoak daudela.

Mendebaldeko kostaldeko irlandar hiztunen komunitateek ahultzen jarraitzen dute mende honetan zehar, baina egoera orokorra nolabait «orekatu» egin da, beste lekuetan irlandera ikasi duten jende multzoak agertu direlako. Horrela ikusita, nolabaiteko arrakastaz mintza gintezke iraupen mailan. Hala ere gai hori ezin da estatistika hutsean geratu. «Irlandarberri» horietatik gehienek eskolan ikasi dute irlandera, eta ez etxean; oso sakabanatuta daude ingelesa nagusi den lurralde zabal batean; ez dute hizkuntza erabiltzeko leku egokirik izaten (etxe eta eskola gutxi batzuetan ezik); eta, oro har, ez dituzte hu-

---

*«Azterketa nazionalaren eta beste zenbaiten emaitzek elebitasunaren maiztasuna eta intentsitateari buruzko informazioa ematen dute, baina ez dute hainbeste argitzen nolakoa den elebitasun forma hori sortzen eta mantentzen duen prozesua, edota hizkuntz politiken eraginkortasuna»*

«Hizkuntz politika-  
ren azken helburuak  
piskanaka aldatzen  
joan ziren, "berpiz-  
kunde"tik "elebita-  
sunera", eta azken  
urteotan "hizkuntz  
maila mantentzera"  
edota gutxiengoaren  
hizkuntzaren "irau-  
penera". Azken hel-  
buru apal hauek lor-  
tzeko ere arazoak  
daude»

rrengo belaunaldietarako elebidunak birsortzen.

Beherakada eta hazkuntzaren arteko oreka horrek nolabaiteko iraupe-  
na adierazten du, baina iraupenaren oinarriak ahulak dira. Badirudi  
belaunaldi bakoitzak bere hiztun-sareak eraiki behar dituela, ia-ia hu-  
tsetik hasita bezala, belaunaldien arteko jarraikortasun gutxiz. Azke-  
nean, nola edo hala, Thomas-ek egindako galdera honi egin behar zaio  
aurre: «Berezko lurralderik ez duen (hiztun) gune bat eraiki ote dezakeen  
instituzio desberdinez osatutako egitura batek, eta sistema horrek funtziona  
ote dezakeen nahiz eta lurralde «hiztun» horiek erabat desagertu» (Thomas  
1973: 367). Thomas-ek gai hori planteatu zuenean Gales-i buruz pen-  
tsatzen ari zen, baina berdin-berdin balio du Irlandarako ere. Gaur  
egungo ikerketek ez dute erantzunik funtsezko galdera estrategiko ho-  
rrentzat, eta ez da erraza jakitea nolakoa izan beharko lukeen ikerketa  
batek horri erantzuteko gai izan zedin. Bitartean, ikerketek eskain de-  
zaketen guztia joeren azterketa sakona da, epe laburreko egokitzape-  
nen oinarri izan daitezkeen joerak, alegia.

Hizkuntz politikaren ebaluazioak arazo jakin batzuk planteatzen ditu,  
nolabait goiko eztabaidari lotua. Maiz, publikoki hitz egiterakoan, Ir-  
landako «hizkuntz politika» aipatzen da, bakarra balitz bezala, baina  
ez da oso azterketa sakonik egin behar politika mota desberdin ugari  
dagoela edo iraganean zeudela ikusteko, besteak beste: garapen eko-  
nomikoa irlandera mintzo zen lurretan, hizkuntz irakaskuntza esko-  
letan, sektore publikoan langileak hautatzeko prozedurak eta irizpi-  
deak, hizkuntz estandarizazioa, irrati eta telebista zerbitzuak, eta bes-  
te neurri asko irlandeararen erabilera bultzatu eta zabaltzeko. Zenbait  
neurri «manta modukoak» dira, hau da, jende guztiarentzat eginak,  
eta beste batzuk, berriz, talde geografiko edo sozial jakin batzuentzat  
bakarrik. Hizkuntz politikak alor asko dituenez, azkenean dena bate-  
ra ebaluatzeko joera nagusitu da. Beraz, ikerketek nolabaiteko emai-  
tza «garbiak» edo orokorrak azaltzen dituzte, baina ezin dute argitu  
zergatik programa jakin batek funtzionatu duen eta beste batek ez  
(Rossi eta Wright 1984: 344).

Irlandako azterketa-ikerketen esperientzietatik eta beste plangintza-  
sektoreei buruzko ikerketengatik beste ondorio garbi bat ere atera de-  
zakegu: hizkuntz plangintza ebaluatzerakoan ezin dela «hizkuntz»  
hitza duten kontzeptuetara mugatu. Alonsok (1975) erregio-plangin-  
tzari buruzko eztabaida batean adierazi duen bezala, politika jakin ba-  
tean neurri gutxi izaten dira berariazko arazo batzuei *esplizituki* zu-  
zendurikoak. Aitzitik, hizkuntz gaietarako ondorio *implizituak* sortu ohi  
dira estatuak beste sektoreetan dituen ihardueretatik. Gutxitan azter-

tzen da zer eragin duten hizkuntz eredueta beste zenbait politikak, esate baterako politika ekonomikoak, sozialak, hezkuntzazkoak, eta lurralde-plangintzazkoak. Baina ziur aski izugarri eragin handia dute hizkuntz eremuan; agian hizkuntz politikek beraiek baino garrantzia handiagoa dute.

Azken puntu horiek beste gogoeta zabalago baten esparruan sar daitezke: hizkuntz politika marko zabal baten barnean formulatzen eta implementatzen da, marko zabal baten barnean ematen ditu bere emaitzak; eta marko hori sare konplexu bat da, prozesu ekonomiko, sozial eta politikoez osaturiko sare konplexua, eta hor garrantzia handia dute, besteak beste, estatuaren hizkuntz kanpoko politikek. Beraz, Irlandako ikerketa-esperientziek ekarpenik egin badezakete, ekarpen hori hauxe dugu: hizkuntz plangintza ezin daitekeela soziologiatik, hezkuntzatik, ekonomiatik eta bestelako diziplina sozialetatik bereizi. Batzuetan badirudi soziolinguistek beste zientzia sozialak ikusten dituztenean kontzeptu, teknika edota metodologia-iturri gisa hartzen dituztela. Hori ondo dago, baina hizkuntz plangintza bezalako diziplina aplikatuek zerbait gehiago egin behar dute benetan baliotsua den politika bat ezarri nahi bada. Hizkuntz politikaren edozein alderdiri dagokionez behar-beharrezkoa da beste gai guztiak ere kontutan hartzea, baita horretarako behar den bilaketa eta ikerketa-lan guztia ere. Hori da beste plangintza-diziplinetan izan duten esperientzia (Friedmann eta Weaver 1979), eta ez dirudi arrazoi garbirik dagoenik hizkuntz plangintzan garapen desberdina behar izateko.

#### Bibliografia:

\*Alonso, W. (1975). Problems, purposes and implicit policies for a national strategy of urbanization. In *Regional Policy: Reading in Theory and Applications*, J. Friedmann and W. Alonso (eds.), 636-647. Cambridge, Mass.: MIT Press.

\*Bord na Gaeilge (1986). *Irish and the Education System: an analysis of examination results* (Report of the Planning Advisory Committee). Dublin: Bord na Gaeilge.

\*Bourdieu P. (1984). *Distinction: A Social Critique of the Judgement of Taste*, trans. by R. Nice. London: Routledge and Kegan Paul.

\*Brown, T. (1981). *Ireland: A Social and Cultural History 1922-1979*. Glasgow: Fontana.

\*Brudner, L.A., and White, D.R.(1979). Languages attitudes, behavio-

---

**«Irlandako ikerketa-esperientziek ekarpenik egin badezakete, ekarpen hori hauxe dugu: hizkuntz plangintza ezin daitekeela soziologiatik, hezkuntzatik, ekonomiatik eta bestelako diziplina sozialetatik bereizi»**



- ur and intervening variables. In *Sociolinguistic Studies in Language Contact*, W. F. Mackey and J. Ornstein (eds.), 51-68. The Hague: Mouton.
- \*Coimisiún um Athbheochan na Gaeilge (1963). *An Tuarascáil Dheiridh*. Dublin: Stationery Office.
- \*Comhairle na Gaeilge (1971a). *Towards a Language Policy*. Dublin: Stationery Office.
- (1971b). *Local Government and Development Institutions for the Gaeltacht*. Dublin: Stationery Office.
- (1972). *Implementing a Language Policy*. Dublin: Stationery Office.
- (1974). *Irish in Education*. Dublin: The Stationery Office.
- \*Committee on Irish Language Attitudes Research (1975). *Report*. Dublin: Stationery Office.
- \*Cronbach, L. J. et al. (1980). *Toward Reform of Program Evaluation*. San Francisco: Jossey-Bass.
- \*Edwards, J. (1984). Language, diversity and identity. In *Linguistic Minorities, Policies and Pluralism*, J. Edwards (ed.), 277-310. London: Academic Press.
- \*Fitzgerald, G. (1984). Estimates for baronies of minimum level of Irish-speaking amongst successive decennial cohorts: 1771-1781 to 1861-1871. *Proceedings of the Royal Irish Academy*. 84.c. (3).
- \*Friedmann, J., and Weaver, C. (1979). *Territory and Function: The Evolution of Regional Planning*. London: Edward Arnold.
- \*Hannan, D. F. and H. Tovey (1978). *Dependency, status group claims and ethnic identity*. In *Dependency: Social, Political, Cultural*. (=Proceedings of the Fifth Annual Conference of the Sociological Association of Ireland), A.E.C.W. Spencer (ed.) Belfast: Queen's University of Belfast.
- \*Haíris, J. (1984). *Spoken Irish in Primary Schools: An Analysis of Achievement*. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.
- \*Lieberson, S. (1986). Language questions in censuses. *Sociological Inquiry* 36, 262-279.
- \*Ó Buachalla, S. (1984). Educational policy and the role of the Irish language from 1831 to 1981. *European Journal of Education* 19 (1), 75-92.
- \*Ó Gliasáin, M. (1980). Intergenerational transmission of Irish in the Gaeltacht. Unpublished. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.
- \*Ohannassian, S., Ferguson, C.A., and Polomé, E.C. (eds.) (1975). *Language Surveys in Developing Nations*. Arlington, Va.: Center for Applied Linguistics.
- \*Ó Riagáin, P. (1978). Regional planning in bilingual areas. Unpublished Ph.D. thesis, Queen's University of Belfast, Northern Ireland.

-(1982a). Athrú agus buanú Teanga sa Ghaeltacht. In *Taighde Sochteangeolaíochta agus Teangeolaíochta sa Ghaeltacht*, 3-28. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.

-(1982b). The influence of social factors on the teaching and learning of Irish. In *Contemporary Perspectives on the Teaching of Irish*, W. F. Mackey, J. Harris, J. A. van Ek, and P. Ó Riagáin, 36-53. Dublin: Bord na Gaeilge.

(forthcoming a). *Language Maintenance in the Kerry Gaeltacht*. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.

(forthcoming b). Irish. In *Educational Research in Ireland*, E. Mac Aogáin (ed.). Dublin: Educational Company of Ireland.

\*Ó Riagáin, P., and Ó Gliasáin, M. (1979). *All-Irish Primary Schools in the Dublin Area: A Sociological and Spatial Analysis of the Impact of All-Irish Schools on Home and Social Use of Irish*. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.

-(1984). *The Irish Language in the Republic of Ireland 1983: Preliminary Report of a National Survey*. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.

\*Ó Tuathaigh, G. (1979). Language, literature and culture in Ireland since the War. In *Ireland 1945-1970*, J. J. Lee (ed.), 111-123. Dublin: Gill and Macmillan.

\*Rossi, P. H., and Wright, J. D. (1984). Evaluation research: an assessment. In *Annual Review of Sociology 10*, R. H. Turner and J. F. Short Jr., (eds.) 331-352. Palo Alto: Annual Reviews.

\*Rottman d. B., Hannan D. F., et. al. (1982). *The Distribution of Income in the Republic of Ireland: A study in Social Class and Family-Cycle Inequalities*. Dublin. Economic and Social Research Institute.

\*Thomas, N. (1973). Six characters in search of tomorrow. In *The Welsh Language Today*, M. Stephens (ed.), 358-369. Llandysul: Gomer.

\*Tovey, H. (1978). Language policy and socioeconomic development in Ireland. Occasional Paper. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.

\*Wall, M. (1969). The decline of the Irish language. In *A view of the Irish Language*, B. Ó Cuív (ed.), 81-90. Dublin: Stationery Office.

\*Whelan C. T., and Whelan, B. J. (1984). *Social Mobility in the Republic of Ireland*. Dublin: Economic and Social Research Institute.